

Donostia-Bilbo-Gasteiz giza katea

Irabazteko etorri dira

Gure Esku Dagok bost urteko zikloa borobilduko du Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba lotuz, gutxienez 100.000 lagun behar dituen giza katearekin, erabakitze eskubidea izan dadin Euskal Herriko etorkizunaren ardatza.



Iñaki Larrañaga

@InakiLarra

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Eskuak estu lotuta eta ahotsak libre, erabakitze eskubidearen aldarrikapenarekin Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotzeko erronka hartu du bere gain Gure Esku Dagok (GED), inoiz gurean antolatu den mobilizazio erraldoiaren. 38 herri eta hiru hiriburu, 100.000 katebegi gutxienez. Gure Esku Dagok bost urte bete-tzeaz dituen ailegatu da bigarren giza katearen proposamena, 2019ko hauteskunde zikloa hasi aurretik, Eusko Legebiltzarreko alderdiei hauspoa eman eta herritarren hatsa senti dezaten. Euskal Herri mailan bidea zabaltzeko duen mugarrira finkatu nahi dute.

GED sasoi ederrean heldu da giza katera, edo, hain zuzen, mobilizazioaren prestaketa izan da entrenamendurik eraginkorrena. Inpresio hori du Nerea Epelde Bilboko eta Deustuko kideak. “Mobilizazioak auzoetako lantaldeak berpiztu ditu, inoiz baino sendoago

dauden hamabost talde ditugu martxan. Inurri lanak behar du noizean behin irudi bat, inflexio puntu bat”.

Bost urteko jardunean kultura politikoa aldatzea izan da GEDen ardatzetako bat. Saretu dira harreman berriak eta gaitzitu hainbat aurreiritzi. “Ez da erraza muga ideologikoak gainditzea”, dio Epeldek, “baina aurreko giza katearen aldean orain jendearen mesfidantza gutxitu dela sumatu dut. Lehen zipriztinduago zegoen gaia. Nor ote zegoen GEDen atzean, galdezka zebiltzan batzuk”. Euskal herritarren arteko errezeloak urtzen doaz poliki-poliki eta ia oharkabean, kaletik desagertzen den elurra bezala.

“Ardura da, erronka da, beldurra sortzen du, bertigoia, erotuta nabil, ala?”, azken hilabeteetan burutik pasa zaizkionak zerrendatu ditu Loren Roca Donostiako GEDeko kideak. Manifestazio

baten aldean konplexutasun berezia du giza kateak. 3.000 boluntariok dimentsio handiko antolakuntza osatzen dute: kilometroen arduradunak, autobusen antolaketa, izen-emateak, baimenak, kamiseta eta zapien salmenta, koordinazioa, irudien grabaketa... ekimenaren arrakastak antolakuntza zorrotza eskatzen du. “Konbentzita nago irudi bikaina emango dugula”.

Gasteizen ere igarri dute azken asteetan ekinaldia, Lorea Hernandez GEDeko kidearen arabera, “aurreko hilabeteetan jendea galdu xamar zebilen, ez zekiten Korrika antzeko zerbaiteko edo zer genbiltzan antolatzen, baina azken asteetan nabaritu da aldaketa. Giza kateak jende asko hurbildu du gugana, dendara datoz zertan lagundu dezaketen galdetzeraz, eta interes handia piztu da”.

Erabakitze eskubidearen matazari segidan josten zaio estatus politikoa-





2014an egindako giza katearen irudi bat Iruñean, Alde Zaharreko sarreretako batean.

ren hari-muturra. Estatu independentea izateko aukera, alegia. Baina GEdek erabakiaren esanahi zabalean ulertzen du, gizarte politika mailan. Hainbat aldarrikapen lotzen dituen haria dela diote, bogan dauden bi diskurtsorekin bat eginda: feminismoaren baitako “norbera bere gorputzaren jabe”, eta pentsio sistema bertan kudeatzearen aldekoa. Hartu emana izan da elkarte hauekin eta bi aldarrikapenen olatua giza katean presente egongo da. Hezkuntza sistema, hizkuntza eskubideak, lan baldintzak... auzi hauetan dabiltzaneren topaleku ere izan nahi du giza kateak. Hori ikusarazteko, bost euroren truke banatuko diren zapi zuriak askotariko mezuz margotzeko gonbidapena luzatu du GEdek.

Iruñean, Gazteluko plazan, kate bikoitza irudikatu zuten maiatzaren 19an: Nafarroako kateen armarriria eta giza katea. Oraingoan nafarrei Zarautz eta

Arabako lautada betetzea egokitu zaie, 2014an haienean gipuzkoar eta arabar katebegiei tokia egin eta gero. Bilboko Nerea Epeldek ez du autobusen joan-etorria erraldoia izango den zalantzarik. “Seguru jende piloa mugitzen dela giza kate honetarako, baita Nafarroatik ere. Bilbotarrok hirian bertan dauzkagu kilometroak...”, irribarre bihurria agertu zaio Epelderi ezpainetan, “eskerrak, kostatzen zaigu Bilbotik ateratzea eta”.

2014ko kateak hiriburu bakarra igaro zuen: Iruñea. Giza katea nondik pasa hor indartu zen GED, eta oraingoan Bilbo, Gasteiz eta Donostiako sugarrak hauspotu nahi dituzte. “Bilbo plaza zailena da. Gakoa izango da ekainaren 10aren bultzada mantentzea. Gerora begira oinarri sendoagoa eraikiko du”. Gasteizen ere ekainaren 10ak piztu du ilusioa, “itxura ona eman behar dugu”, eta ezagun zaio hitz egiteko abiadan,

“oso lanpetuta gabiltza”. Aiztogile edo “Kutxi” kalea jai erraldoi bihurtuko den egunean jendea katerako ordenatzeaz arduratuko da Lorea Hernandez.

Legebiltzarrari bultzada

Gure Esku Dagok hasieratik argi izan du fokua non jarri: “Herritarrak gara protagonistak”. Baina ekainaren 10ean nor bultzatu behar den ere garden erakusten du katearen helmugak. Eusko Legebiltzarraren atarian osatuko da 201,9 kilometroa, azkena hain zuzen, autogobernu ponentzia eztabaidatu eta idazten ari den erakundean. Abagune egokia dute, beraz, erabakitze eskubidea erdigunean kokatzeko.

“Gasteizko Legebiltzarreko lehen hiru alderdiek erabakitze eskubidearen aldeko diskurtsoa dute. %75 baino gehiago dira”, esana du Angel Oiarbide GEDen bozeramaileak, nahiz eta eguneroko po-



GIZA KATEA

EKAINAK 10



Egitaraua

10:00

Parte-hartzaileak iristen hasiko dira

11:30

Giza katea muntatu eta animazioa hasiko da

12:00-12:30

Giza katea eta ekitaldi nagusia

12:30-13:00

BUKAERA. Amaierako seinalea

Jai giroa Bilbon, Donostian eta Gasteizen



+100.000 pertsona



1.200 autobus



3.000 boluntario



2.019 arrazoi

litikan apenas hezurmamitu den gehiketa hori. “Hurbiletik segitzen ari gara ponentzia. Gure ordezkarien adostasuna ezinbestean herri honen nahiaren arabera izan behar da”. Maiatzaren 24an EAJ eta EH Bilduk bat egin zuten estatutu berriaren hitzaurrean erabakitzeko eskubidea aitortzerako orduan; Elkarrekin Podemosek azken unean atzera egin zuen.

Eusko Ikaskuntzak eta Eusko Legebiltzarrak lankidetzara hitzarmena sinatu dute autogobernua elkarrekin berritzeko. Horren baitan, giza katearen bezperan, 600 lagun elkartzeko dira Gasteiz, Donostia eta Bilbon herritarren ekarpenak jaso eta adostasunerako aukerak eta joerak bilatzeko. Prozesu parte hartzaile horren sintesia Eusko Ikaskuntzari dagokio, gerora Legebiltzarrak estatutu proposamenaren txertatzeko. 2019ko negurako aurreikusia dute azken fasea: galdeketa ahalduntzailea, Espainiako Gorteen onarpena eta erreferendum behin betikoa. Maiatzaren 27an, Gernikan, 200 hautetsik erabakitzeko eskubidearen alde sinatutako manifestua ezagutu zen. Hegoaldeko hiriburu eta lau alkateek bat egin zuten harekin.

Hegoaldeko haizeak

2018ko testuinguru politikoa ez da samurra, egin duten analisiak jasotzen duenez: “Bidegurutze batean gaude: hegoaldetik datozen haize atzerakoiak

ditugu alde batean, eta demokrazian oinarritutako ziklo berri bat bestean”. 155 artikuluen mamuak estali du zazpi hilabetez Katalunia, eta bide batez euskal autogobernuak kikildu. Katean keinu bat egingo diete Kataluniako preso politikoei, 122garrena elkartasun kilometroa izango da, Indautxun, eta zapi horiak salduko dituzte ANC eta Omnium Culturalen elkartasun diru kutxarako. Ez da ahazteko kontua, Gure Esku Dagok antolatutako zitueta, ez beste inork, Kataluniako erreferendumaren aldeko bi manifestazio jendetsuenak Bilboko Autonomia kalean.

Espainian abiadura hartu duen birzentralizazio korrontearen aurrean egonean egoteak egungo autogobernu mugatua arriskuan jarri duenean, Gure Esku Dagok ekainaren 10eko giza katearen garrantzia seinatu du: “Balio behar du adierazteko herri hau ez da goela prest atzera egiteko bere asmoa helburuetan”. Zorionez edo zoritxarrez, mehatxua sentitzea mobilizazioaren lagungarri izaten da maiz, eta horregatik ere erantzun zabala espero dute antolatzaileek. Zifra hutsetan esanda: 2014ko katea baino %70 luzeagoa da igandekoa.

Espainia eta Kataluniako gorabeherak demokraziaren alde egingo duten piskizan, itxaropenez ikusten dute ETaren zikloaren itxiera, beste bat zabaltzeko grinez. “Azken hamarkadetan



bizitako testuinguru konplexuaren ostean, aurrera egiteko tresna bat gehiago da erabakitzeko eskubidea. Epe luzerako bizikidetzara bermatzeko gako garrantzitsu bat”.

Gure Esku Dagok egindako spotak aintzat hartzen du ahoz aho dabilen “hoztasuna”, mobilizazioa etsipenaren antidoto edo aringarria izan liteke. Gauzak horrela, iragarpen bideoan zuzenean bota dute gezia bihotzera. Al-dageletan jota ahituta diruditen emakume errugby jokalaria, eta kapitaina animoak eman nahian: “Zer gertatzen zaigu? Noiz bilakatu gara garen talde kaskar hau? Nondik gatozen ahaztu dugula ematen du. Zertarako balio du kontrarioari gure akatsak aurpegiratzeak taldea ez bagara? Taldea ez bagara alferrik ari gara. Talde bat gara, ala etxera joan behar dugu? Ez daukazue irabazteko gogorik?”. Behin *coaching* ariketa amaituta, mundua irabaztera ateratzen dira neskak.

2.019 arrazoi Herri Ituna errazteko

Giza katea borobilduko duen dokumentua, Herri Ituna, labetik ateratzeko atarian da, erabakitzeko eskubidea 2.019 arrazoiz jaten duen txostena. Azken urtea lanketa hori egiten eman dute. “Zergatik Erabaki?” galderaren bueltan hiriburuetan mahai inguruak eta eskualdeetan saio parte hartzaileak egin dituzte. Webgunean eskuragarri duten dinamizazio

HERRI GALDEKETAK



2014

Herriak: 2
Biztanleak: 3.423 · Errolda: 2.805
Parte-hartzea: 1.353 (%48,24)

2016

Herriak: 36
Biztanleak: 150.134 · Errolda: 127.137
Parte-hartzea: 37.854 (%29,77)

2017

Herriak: 142
Biztanleak: 708.189 · Errolda: 607.051
Parte-hartzea: 136.195 (%22,44)

2018 (orain arteko datuak)

Herriak: 23
Biztanleak: 109.388 · Errolda: 93.178
Parte-hartzea: 13.937 (%14,63)



2014/04/13 - 2018/05/13



203 herri - 971.134 biztanle



189.204 boto



%22,81ko parte hartzea

gida mardula landu dute horretarako, eta internetez ekarpenak jaso dituzte. 2.000 bat lagunek parte hartu dute, sektorez sektore bilduta: ongizatea, kultura, herritartasuna eta lurra.

Giza katea egin eta astebetera txostena erakundeen esku utziko dute: Eusko Jaurlaritzan, Nafarroako Gobernuan eta Euskal Elkargoan. Helburua da dokumentu horrek Herri Ituna ahalbidetzea, "Euskal Herriko eragileen artean herri gisa erabakitzeak behar diren konplizitateak eta adostasunak jostea helburu duen Erabakitze Eskubidearen Aldeko Herri Ituna", GEDen 2018ko plangintzaren arabera. 2019an gogoeta faseari ekingo dio herri dinamika, bost urteen balorazioa egin eta etorkizunerako pausoak eta helburuak finkatzeko.

2018/06/17: Igeldo

2018/11/18: Donostia eta Irun

"Bulebarretik hasi eta Kontxa, Antigu, Añorga, jendez bete-bete eginda". Loren Roca Donostiako Gure Esku Dagoko kideak irudikatzen du ekainaren 10eko argazkia. "Alderdi Ederren herri mugimendu batek kontzertuak antolatu ditu, hori berria da, muga mentalak apurtzen ari gara apurka apurka. Ondo ateratzen bada nabarituko da galdeketa". Azaroaren 18an Donostiako auzo guztietara hauteslekuak eramateko azpiegiturak prest daukate, 30 hautesleku gune inguru, besteak beste. Mahaletan auzoko jende esanguratsua egon dadin ahaleginak egiten ari dira, horrek lagunduko duelakoan.

Galdera ez dute oraindik zehaztu, lanketan dabilta. Orain arteko saioetan bi joera edo galdera mota sumatu dituzte: burujabetasunaz eta antolaketa politiko zehatzaz, esaterako, estatu

independenteaz galdetzea. "Jendea mugiaraztea da helburua eta honen arabera galdera osatu beharko dugu denak eroso senti daitezen".

Pedagogia kontua da batez ere, loteslea ez den heinean. "Edo ahalduz gero eta sinesten dugu erabaki dezakegula, edo ez daukagu zereginik". Besapean 10.000 donostiarren sinadurak dituztela eman dute urratsa, txindurri lana eginda, "egun euritsueta mahaian sinadura bila ibiltzea ez da erraza!".

Irunen ere azaroaren 18an egingo dute galdeketa, alegia, Gipuzkoako herri handien eta Euskal Herriko seigarren udalerrir populatuenean. Antolatzaile taldea, Hartu Hitz, 2017an eratu zuten, sentikortasun eta jatorri desberdinetatik zetozen pertsonak bilduta, Gure Esku Dagok abiatutako dinamika jarraituz Euskal Herriaren estatus politikoari buruzko galdeketa antolatze-ko 3.800 sinaduratik gora bildu dituzte.

**GUZTION LIBURUAK,
BIDEOAK, AUDIOAK...
GUZTIONTZAT**



HARPIDETU



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

www.booktegi.eus

ANGEL OIARBIDE, GURE ESKU DAGOKO BOZERAMAILEA

“HERRITARREN ERABAKITZEKO ARRAZOIAK ERABAKIGUNEETARA ERAMATEA JARRI DUGU HELBURU”

Zer sentsazio dituzue ekainaren 10eko giza katearen atarian?

Ilusio handia. Behartu gaitu pertsona bezala ardurak hartzera. Inoiz baino plataforma gehiago daude martxan Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan. Oso ondo doa, Gure Esku Dago erronka handietarako jaio zen, arriskatzeko. Katean azaleratuko dira gainera azken hilabeteetako mobilizazio erraldoiak: martxoaren 8koak, Altsasukoak, pentsionistak... horien guztien aldarrien oinarriak lotzen dituen erabakitzeko eskubidea delako. Mobilizazioek erakutsi dute momentua dela borrokarako, altxatzeko eta elkarrekin egiteko. Galtzearen sintonia ere bada go orain. Hegoaldetik datorren haizeak daukaguna ere kendu nahi digu. Horren aurrean etorkizuna dugu irabazteko, diseinatze eta eraikitze.

Giza Katea Eusko Legebiltzar atariraino daramazue oraingoan. Zergatik?

Herritarren erabakitze arazoak erabakiguneetara eramatea jarri dugu helburu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan badago eztabaida instituzionala, Nafarroan eta Iparraldean eritmo diferenteak daramatzate, Gasteizen indarra jartzeko deia handik etorri zaigu. Orain legebiltzar horretan mugari bat mugitzeko dugun gaitasunak Euskal Herri mailako eragina izango du. Herritar Ituna eramango dugu Gasteizera, baita Iruñea eta Iparraldeko Elkargora ere. Baldintzak sortu nahi ditugu Herri Ituna eman dadin.

Bost urteko ibilbidea betetzear zarete, zein da Gure Esku Dagoren balorazioa?

Oso gustura gaude. Gure Esku Dago herri dinamikak ekarpena egin dio gizarteari. GED gabe, zein egoeratan geundek? Hasieran aipatu genuen, GED ez zela lelo bat, jarrera bat baizik. Ikusle izatetik protagonista bihurtzera. Ez da fede kontua, pausoak eman behar dira eta eragiteko aukera sentitu. Horretan ari gara. Lehen giza katea aurkeztu genuenean 123 kilometro antolatuta genituen. 50.000 lagun behar genituen, hori zen gizartearen tenperatura.



Erronka hori gainditu genuen eta bi ideia barneratu genituen: sentsibiltate politiko ezberdinetako jendeak elkarrekin pausoak emateko gaitasuna eta elkarrekin lan eginda eragiteko aukera zenbaterainokoa zen. Giza kate arrakastatsu harekin eske mak apurtzen hasi ginen.

Galdeketa izan dira antolatu dituzuen ekintza nabarmenenak.

Bigarren urtean ehuntzeko, adosteko eta erabakitze fasea zabaldu genuen. Galdeketa egitean jarri genuen amaieran indarra: 203 herri, 900.000 biztanle, 190.000 lagun parte hartzea, herritarren %22,81. Azaroan Donostiak eta Iruñek ere bozkatuko dute.

Emaitzen aurrean askok diote parte-hartzea txikia dela. Zer esango zenieke?

Askotan estatistiketan gelditu da galdeketa ildo, galdeketa prozesuaren aberastasunaren %99 galtzen da horretan. Instituzioen bozketekin alderatzen gaituzte, ohorea da hori, guk ez ditugulako

haien giza baliabideak, ezta milioi euroak ere. Eta instituzioenetan zenbatek parte hartzen du? %60k Gasteizen, lehendakaria eta lau urteko politika aldatzeko aukera izanda. Gustatuko litzaiguke askoz ere jende gehiagok parte hartzea, baina fase honi ezin zaio eskatu lotesleak liratekeen hauteskundeak bezalako parte-hartzea. Hori erabiltzen dute esateko ez dagoela interesik, gezurra da. Norbaitek uste badu Eskozia gai dela instituzio gabe horrelako zerbaite egiteko, oso oker dago. Zer suposatzen du galdeketa egiteak? Haserretzeko gaia zena orain arrazionaltasunera eramatea. Hau fase bat da. Orain badakigu nola egiten den, nola antolatu behar den.

Kataluniako Jordi Cuixart, Omnium Cultureko burua, aldamenen izan zenuten iaz Bilboko mosaikoan. Orain espetxean da. Zer gogoeta egiten duzu?

Katalanek erakutsi dute determinazioz eta modu baketsuan, demokratikoki egin dutela bidea. Halere espetxeratuak izan dira, herritarrei hitza emateagatik. Hori da Espainiako Estatuaren dagoen jarrera. Bi trenen arteko talka eman da. Iraganekoa eta etorkizunekoa. Talka ez da amaitu. Uste duenak iraganekoak irabazi duela oker dabil. Min handia eragiten ari da, hori bai, baina oraindik ez da partida bukatu. Ez da ehun metroko saioa, maratona baizik.

2019rako ziklo amaiera iragarri duzue.

Urte horretan ziklo elektoralak hasiko da. Adostasuna eta elkarlana hauspotzeko hauteskunde garaia beste muturrean dagoen egoera da. Eredua borobildu behar genuen orduko. Momentua heltzean bost urteen balorazioa egingo dugu eta ziklo berrian Gure Esku Dagok egin dezakeen ekarpenari buruz hausnartu. Erabakitze jaio ginen, erabaki arterainoko ibilbidea dugunik ez dugu zalantzan jartzen. Etorkizuneko erronkei nola aurre egin hausnartu behar dugu. Datorren urte hasieran batzar bat egingo dugu horretarako. ■